

MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Egileak: Ane Lopez, Naia Eguia, Sofia Gomez eta Arai Biteri.

Lehen aipatu bezala, gure proiektuaren helburu nagusia **ongizatea bermatzea** eta **jasangarritasuna bultzatzea** da, hauen ezaugarriak osotasunean kontuan hartuta.

Proiektuari hasiera emateko, Uribe Kostako herriek eskaintzen dizkiguten baliabideez eta ahalmenez baliatuko gara. Hau garatzeko, bertako udaletxeei gure proiektua aditzera emango diegu. Horrela, gure bezero potentzialak Uribe Kosta osatzen duten udaletxe ezberdinak izango lirateke; hala nola, Plentziako Udala, Urdulizko Udala, Gorlizko Udala, etab. Honekin batera, udaletxeek gure proposamena onartuz gero, gure zerbitzuez gozatuko duten bezeroak herri horretako biztanleak eta herri horiek bisitatzeko dituzten turistak izango dira. Gauzak horrela, gure bezeroek aukera izango dute gure enpresak eskaintzen dituen ekintzetaz gozatzeko.

Gure eskaintza, takilak alokatzea, bizikletak alokatzea eta hozkailu solidarioa direla aintzat harturik, hauek kontsumituko dituzten **bezeroek horrelako ezaugarriak izango dituztela uste dugu**; **pertsoneri edota gure planetari laguntzea eta kulturak edota beste bizimoduak ezagutzea** ageriko nahia dutenak izatearen itxaropena daukagu. Nolanahi ere, **turismo jasangarriaren alde egiten dutenak** nabarmen izatea espero dugu, guk horretan sinisten baitugu. Hitz gutxitan, **gizartearen ongizatea** bermatzea dutenak. Hala ere, argi dago, edonork erabil ditzakeela guk azaleratzen ditugun edozein zerbitzu.

Gauzak horrela, gure bezeroak anitzak eta ezaugarri ezberdinetakoak izan daitezkeela ondorioztatu dezakegu: alde batetik, Uribe Kostan bizi diren biztanleek gure zerbitzuak erabili ditzakete; baina bestetik, turistak ere izango dira gure bezeroak. Baita, gure inguruan beraien oporraldia igarotzera etortzen diren inguruko herritarrak ere.

Hasteko, gure bezeroak bertakoak edota kanpotarrak izan daitezkeenez, komunikatzeko tresna **euskara**, **gaztelera** eta **ingeleza** izango dira. Beti ere, gure lehenengo hizkuntza euskara izanda, euskal kultura sustatzea eta euskaraz bizitzea helburu daukagulako. Horrez gain, beste hainbat printzipio eta baloreri ere garrantzia ematen diegu:

- Ekologia eta ingurumena babestu
- Beharrian sozialei aurre egin eta konponbide ezberdinak topatu
- Bizitzeko modu egoki bat lortu/sustatu
- Bizitza osasungarria
- Uribe Kostako baliabideez baliatu
- Kalitatezko uneak aprobetxatu
- Naturaz gozatu

Gaur egun gure inguruan ezaugarri hauek biltzen dituzten eskaintzen gabezia nabaria da, beraz, guzti honen alde egin edota interesa duen ororengana jotzea da gure xedea, hutsune hau betetzeko asmoz.

Merkatu mota ezberdinak daudela kontuan izanik, bezeroen segmentazioaren arabera sailkatu eta gure eskaintza desberdinen arabera mailakatu ditugu:

| | |
|-----------------------|--|
| Takilen alokailua: | Merkatu masiboan oinarrituta egongo da, bezero talde handi batean zentratzen baita, bezero mota desberdinak benetan bereiztu gabe, eta antzeko behar eta arazo multzo bat asetzea helburu duelako. Bestalde, merkatu segmentatua euskarri dauka, motxilarekin bidaiatzen dutenei edo herriz herri abiatzen direnei, leku zehatz batean haien ondasunak uzteko erosotasuna eskaintzen baitiegu. |
| Bizikleten alokairua: | Merkatu masibo baten baitan kokatzen da, izan ere, bizikletaren alokairua edonork egin lezake. Hauen ezaugarriak erosotasun ekimena da nabarmen. Gainera, hauen erabilera osasungarria da planetarentzako eta garraio kutsagarrien erabilera ekiditzeko. |
| Hozkailu solidarioa: | Merkatu-nitxoa da, bezero zehatz batzuetarako zuzenduta baitago. Egia da, edonork har dezakeela baina, konkretuki, diru-sarrera behar adina ez dutenentzat izango da. |
| Bidegorria: | Merkatu masibo baten baitan, izan ere, oinez doazenak, bizikletan doazenak edota edozein kirol egin nahi duenarentzat egina dago. Hauen ezaugarria kirol ekimena da nabarmen. Kirola sustatzeko, istripuak murrizteko eta bizikleten erabilera bultzatzeko pentsatutako dago. |